



LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIAREN 2019ko EKAINAREN 17ko EBAZPENA, 2019/2020ko IKASTURTEA HASTEKO PROZESUAN ESLEITU GABE GERATU DIREN LANPOSTUAK, EZAGUTZEN DIREN GAINONTZEKO ORDEZKAPENAK ETA IKASTURTEAREN HASIERAKO PROZESUAN EGINDAKO ESKAINTZAREN ONDOREN IDENTIFIKATU DIREN ETA HEZKUNTZA ZERBITZUA EMATEKO BEHARREZKOAK DIREN GAINONTZEKO LANPOSTUAK ESLEITZEKO PROZESUA DEITZEN DUENA.

Ikasturtearen hasierako prozesuan esleitu gabe geratu diren lanpostuen esleipena prozesu baten itxiera da. Izan ere, planifikatzeko eta pertsonala kudeatzeko egin diren hurrenez hurrengo jarduerak eratzen dute prozesu hori eta hasten den ikasturtearen matrikulara egokitutako hezkuntza-zerbitzua emateko behar diren irakaskuntza-lanpostuak zehaztea eta ikastetxeei, haien jarduera aurrera eramateko, behar diren irakasle egokiak ematea ditu prozesu horrek helburu nagusiak.

Esleitzeko prozesu hori ondorengo legeriak arautzen du: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2011ko uztailaren 15eko aginduaren, irakaskuntza-kidegoetara sartzeko prozesuen praktika-fasea egin behar duten pertsonen eta irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda integratzen dutenei begira ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesua arautzen duenaren, bigarren xedapen gehigarriak; 2018ko maiatzaren 18ko aginduak, irakaskuntza-kidegoetara sartzeko prozesuen praktika-fasea egin behar duten pertsonen eta irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda integratzen dutenei begira ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesua arautzen duen 2011ko uztailaren 15eko agindua hirugarren aldiz aldatzen duenak, eta 2012ko urriaren 9ko aginduak, pertsonal irakaslearen aldi baterako premiak informatikoki betetzeko prozesua, premia horiek irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda integratzen duten pertsonen esleitzuz, arautzen duena, aldatzen duenak.

Halaber, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuaren 2012ko abuztuaren 27ko agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko pertsonal irakaslearen aldi baterako premiak betetzeko ordezkogaien zerrenda kudeatzeari buruzko araudia onartu zuena, da esleitzeko prozesuaren premisetako bat. Ordezkogaien zerrendak espezialitateen arabera eratzen dira, mailetan sailkatzen dira eta, ikasturtearen hasierako prozesuaren ondorioetarako, taldeetan antolatzen dira.

Prozesua urtero deitzen da, Hezkuntza Sailaren web orrian argitara ematen den eta egutegia konkretatzen duen Langileak Kudeatzeko zuzendariaren ebazpenaren bidez.

Horregatik guztiarengatik,

EBAZTEN DUT:

Lehena.- Prozesua deitzea.

2019/2020ko ikasturtearen hasierako prozesuan esleitu gabe geratu diren lanpostuak, ezagutzen diren gainontzeko ordezkapenak eta ikasturtearen hasierako prozesuan egindako eskaintzaren ondoren identifikatu diren eta hezkuntza-zerbitzua emateko behar diren gainontzeko lanpostuak esleitzeko prozesua deitzen da.

Bigarrena.- Derrigorrezko parte-hartzea.

Irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrenda integratzen duten, 2019/2020ko ikasturtearen hasierako esleitzeko prozesuan lanposturik lortu ez duten eta, 1. kidesunaren mailarekin, libre dauden pertsonak derrigorrean hartu beharko dute esleitzeko ekitaldietan parte, ebazpen honen A eranskinean agertzen den egutegian adierazitako datan argitara emango den derrigorrezko parte-hartzearen puntuazioa badute.

Ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendak integratzen dituzten pertsonak, derrigorrean parte hartu behar ez duten arren, izango dute borondatez parte hartzeko aukera.

Hirugarrena.- Eskainitako lanpostuak.

Eskainitako lanpostuak eta berorien ezaugarriak aldeztatik Hezkuntza Sailaren web orrian, zerrenda baten bidez, emango dira argitara. Zerrenda horretan haien ezaugarriak agertuko dira eta, ezaugarri berezietako lanpostutzat jotzen badira, horrela adieraziko da.

Laugarrena.- Egutegia.

Ebazpen honen A eranskinean parte-hartzaileentzat adierazten diren egutegiaren eta ordutegiaren arabera eramango da esleitzeko prozesua aurrera.

Bosgarrena.-Eskaerak.

1.-Prozesuan parte-hartzea formalizatzeko, eskaera elektronikoa helbide honetan: <http://www.irakasle.net> , bete beharko da. Identifikazioa erabiltzailearen eta pasa-hitzaren bidez egingo da eta, erabiltzailerik izan ezean, NANarekin eman beharko du parte-hartzaileak bere burua altan. Sartzeko pasa-hitza gogoratu ezean, berreskuratzeko erabilgarritasun bat izango duzu aipatutako helbidean.



2.-Datuak Egiaztatzeko Zerbitzuaren bidez egiaztatuko da eskatzailearen identitatea, otsailaren 21eko 21/2012 dekretuak, Administrazio Elektronikoarenak, bigarren xedapen gehigarrian zehaztutakoaren arabera.

3.-Aplikaziora lehen aldiz sartzen denean, altan emango da eskaera eta horrek emango dio parte-hartzaile bakoitzari identifikazio- eta prozesuan parte hartzeko datuak kontsultatzeko aukera.

Seigarrena.- Eskaerak sartzeko espezifikoki egokitu diren puntuen kokapena.

Eskaerak bete ahal izateko ordenagailu batzuk jarriko ditu parte-hartzaileen eskura Hezkuntza Sailak. Ordenagailu horiek ondorengo tokietan daude kokatuta:

ARABA

Hezkuntza Ordezkaritza. San Prudentzio 18, Vitoria-Gasteiz.

GIPUZKOA

Hezkuntza Ordezkaritza. Andia 13, Donostia.

BIZKAIA

Hezkuntza Ordezkaritza. Kale Nagusia 85, Bilbo.

Zerbitzu hori ondorengo egun eta orduetan egongo da irekita:

	Araba, Gipuzkoa eta Bizkaia
Irailaren 4a	09:00etatik 14:00etara

Zazpigarrena.- Ikastetxeen zerrenda ordenatua.

Eskaera generikoak garatzearen eta eskaerak derrigorrean sortzearen ondorioetarako, 2011ko uztailaren 15eko eta 2012ko ekainaren 6ko aginduetan ezarritako irizpideak aplikatuz B eranskin gisa argitara ematen dena da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeen zerrenda ordenatua.

Zortzigarrena.- Pertsonal irakaslearen espezialitateak.

Prozedura honen ondorioetarako, C eranskinean ezartzen direnak dira espezialitateak.

Bederatzigarrena.- Ordezko gaien talde eta espezialitateak.

Prozedura honen ondorioetarako, ondorengo zortzi talde generikoetako baten barruan dago espezialitate bakoitza, C eranskinean ezarritakoaren arabera:



1. taldea. Maisu/Maistrak
2. taldea Bigarren Hezkuntza
3. taldea Lanbide Heziketako irakasle teknikoak
4. taldea Hizkuntza Eskola Ofizialak
6. taldea Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakaskuntzak
7. taldea Musika Irakaskuntzak
8. taldea Antzerkiko goi mailako arte-irakaskuntzak
9. taldea Dantzako goi mailako arte-irakaskuntzak

Hamargarrena.- Lanpostuak eskatzeko era.

1. – Eskaerak, gehienez ere, datuak sartzeko 500 lerro ditu. Lerro bakoitzean aukeratzen diren lanpostuak idatziko dira, bi modu horietako bat erabiliz:

a) Eskaera konkretua, lanpostuak argitara emandako zerrendan duen ordena-zenbakia adierazten den kasuan. Lanpostu bakar bati buruzkoa da.

b) Eskaera generikoa, lanpostuak definitzeko ezaugarriei buruzko eremuren bat edo batzuk (lurrealde historikoa, barrutia, udalerrria, ikastetxea, espezialitatea, hizkuntz eskakizuna, derrigortasun-data, lanaldi mota, ibiltaria izatea, singularra) betetzen bada. Eskaera mota horren bidez erabilitako eremuari edo eremuiei dagozkion /dagozkien lanpostu guztiak eskatzen dira, eskatzaileak lanpostu horietara sartzeko baldintzak betetzen baditu.

2. – Lerro bakoitzaren hasieran agertzen den eskaeraren zenbakiak zehazten du lerro bakoitzean aipatzen den lanpostua edo lanpostuak kontuan hartuko den /diren ordena.

Hamaikagarrena.- Eskaera aldatu eta ixtea.

1.-Eskaera altan eman ondoren, irekita jarraituko du eta edozein unetan aldatu ahal izango da, aurkezteko epeak irekita jarraitzen duen bitartean. Sartutako datuak zirriborroaren formatuan inprimatzeko modukoak izango dira.

2.-Pertsonak berak borondatez, edo automatikoki epeak bukatzen duen unean, itxiko du eskaera eta ordura arte grabatua izan dena hartuko da kontuan.

3.-Eskaera itxi ondoren, ezin izango da inolako aldaketarik egin eta erregistratutako aukera eta eskaerak agertuko dituen inprimaki bat lortu ahal izango du parte-hartzaile bakoitzak.

**Hamabigarrena.- Balidatzeak.**

1.-Eskaerak aurkeztuko epeak bukatu ondoren, sartutako datuak egiaztatuko ditu sistemak eta, parte-hartzaileek baldintzetakoren bat betetzen ez badute, ez ditu eskaera horiek onartuko.

2.-Elementu inkoherenteak dituzten edo deitu ez diren lanpostuei buruzkoak diren eskaera horiek ere ez dira onartuko.

3.-Esleipenari buruzko ebazpena argitara ematen den unetik, parte hartzeko egiazko baldintzak agertzen dituen inprimaki bat lortu ahal izango da, hots, onartu eta onartu ez diren eskaerak eta aukerak. Eskaerak baliogabetzearen ondorioz ezin izango da eskaera aldatu.

Hamahirugarrena.-Eskaera generikoak garatzea.

1.-Sartzen dituzten lanpostuen multzoan garatuko dira, informatikoki, eskaera generikoak. Horiek horrela, eskaerak haiek guztiak sartuko ditu.

2.-Parte-hartzaileak prozesuan parte hartzen duen baldintza eta aukera guztiak hartu beharko ditu garapen honek kontuan, horrela sar daitekeen lanpostuak zeintzuk diren zehazteko asmoz.

3.-Irizpide horiek kontuan hartuta, lanpostuaren ordena-zenbakikoa ez den zutabe bati dagokion laukia betetzeak eskuinaldeko zutabe guztien edozein aukera betetzen duten lanpostu guztiak eskatzea dakar, ezaugarri berezietakotzat jotakoak izan ezik. Laukiak zutabe bat baino gehiagotan betetzen badira, erabilitako zutabeetan adierazitakoak ez diren aukerak ez dira kontuan hartuko.

4.-Eskaera generiko batean sartuta dauden lanpostuak horrela ordenatuko dira:

- a) Ebazpen honen B eranskinean ezarritako lurralde historikoaren- barrutiaren- udalerrriaren- ikastetxearen ordenaren arabera.
- b) Ikastetxe bakoitzaren barruan, ebazpen honen C eranskinetan ezarritako talde eta espezialitateen ordenaren arabera.
- c) Espezialitate bakoitzean, lehenago 2. Hizkuntz eskakizuneko lanpostuak, 1. hizkuntz eskakizunekoak baino.
- d) Hizkuntz eskakizun bakoitzean, lehenago derrigortasun-data gaindituta dutenak, atzeratuta dutenak baino.



- e) Derrigortasun bakoitzean, lanaldi murriztukoei baino lehentasun handiagoa emango zaie lanaldi osoko lanpostuei eta, lanaldi osokoen artean, iraupen handiagokoei, eta ez iraupen txikiagokoei, emango zaie lehentasuna.
- f) Lanaldi bakoitzean, lehenago esleituko dira ibiltariak, ibiltariak ez direnak baino.
- g) Azkenik, lehenago emango dira singularrak ez diren lanpostuak, singularrak direnak baino.

Hamalagarrena- Derrigorrezko eskaerak sortzea.

1.- Prozesuan derrigorrean parte hartu behar duen pertsona batek ez badu eskaerarik aurkeztu edo sartzeko baldintza guztiak betetzen dituen eskaera guztiak agortu ez baditu, egin daitezkeen eskaeren mugaraino osatuko du sistema informatikoak eskaera.

2.- Eskaera generikoak garatzeko finkatutako irizpideen arabera ordenatuko dira sortze horren ondoriozko lanpostuak eta horiek guztiak azken borondatezko eskaera baino geroagoko ordena-zenbakian kokatuko dira.

Hamabosgarrena.- Ikastetxearen eta helbidearen arteko distantzia.

1.-Prozesu honetan, lanaldi murriztuko lanpostu bati uko egin ahal izateko, ezin izango da lanpostu hori dagoen ikastetxearen eta helbidearen arteko distantzia 50 kilometro baino gehiagokoa izatearen arrazoia erabili.

2.-Horregatik, 2019ko uztailaren 1tik 5ra bitartean, biak barne, interesatuek izango dute, ebazpen honen D eranskinean jasota agertzen den formularioaren arabera, eman beharreko lurralde historikoaren eta lanaldi motaren aukerak aldatzea eskatzeko ahalmena. Aldaketa horrek ebazpen honen bidez araututako prozesuan besterik ez ditu ondorioak izango.

Hamaseigarrena.- Esleipenean izan beharreko lehentasuna.

Ikasturtean irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendan posizio hobean egoteak zehaztuko du esleitzeko ordena. Eskaera osatzen duten lanpostuen artean, libre dagoen eta baliagarri den lehen lanpostua esleituko zaio pertsona bakoitzari eta eskaera konkrituak eta eskaera generikoak garatzearen eta derrigorrezko eskaerak sortzearen ondoriozkoak hartuko dira kontuan, ebazpen honetan ezarritakoaren arabera ordenatuak.

Hamazazpigarrena.- Ondorioak eta izendapena.

1.- Ezin izango zaio esleitutako lanpostuetan aritzeari uko egin, uko egin ahal izateko zerrenda kudeatzeari buruzko araudian jasota agertzen diren arrazoietakoren bat betetzen



duten irakasleen ordezkapenak egiteko ordezkogaien kasuetan izan ezik, betiere arrazoi hori ustekabeko egoera berrien ondorioa bada. Egoera berri horiek eskaerak aurkezteko epea hasi baino lehenagoko bost egunetatik lanpostuaz jabetzera arteko aldi gertatu behar dira eta ez dute alegatzen dituen pertsonaren borondatezko jarduera baten ondorio izan behar.

2. -Esleipenari buruzko ebazpenean zehazten den egunean hasiko da esleitutako lanpostuen izendapena, lanpostuaren oharretan geroagoko beste data bat zehazten ez bada. Haren baliagarritasuna, betiere, lanpostuaz jabetzearen eraginkortasunaren menpe egongo da.

3. – Lanaldi murriztuko lanpostuak zerrendan argitara eman diren orduen arabera egingo dira lanpostu horietarako izendapenak, zein lanaldi motatarako esleituak izan diren alde batera utzita.

Hemezortzigarrena.- Sexu-delituen ziurtagiria.

Esleipen hauen helburu diren lanpostuetara sartzeko, lege organikoan ezarritako terminoen arabera sententzia irmoaren bidez zigorrik jaso ez izanaren aitorten arduratsu bat aurkeztu beharko dute, lanpostuaz jabetu aurretik, lanpostu horietako edozein esleitzen zaien pertsonak. Halaber, Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean kontsultatzeko baimena eman beharko dute edo, bestela, erregistro horren ziurtagiri negatiboa aurkeztu beharko dute zuzenean ikastetxean, betiere lanpostuaz jabetu aurretik.

Hemeretzigarrena.-Egoera bereziak.

Lan-istripuarengatik, gaixotasun profesionalarengatik, amatasunarengatik, aitatasunarengatik, haurdunaldian arriskuarengatik edo arrisku-haurdunaldiarengatik aldi baterako ezintasun-egoeran, egoera hori behar bezala ziurtatu behar da, dauden pertsonak, edo adopzio edo harrerarengatik aldi baterako baja-egoerara sartu direnak, izango dute esleipenean lanpostua hautatzeko aukera eta betetze-denbora zerbitzu-denboratzat zenbatuko zaie, zerrenda birbarematzearen ondorio bakarretarako.

Aukeratutako lanpostua ikasturte osokoa bada, egoera hori eragin duen gertaerak bukatu ondoren sartu ahal izango da lanpostu horretara eta, une horretatik aurrera, izendapena formalizatuko da.

Lanpostua aukeratzen duten eta egoera horietakoren bat dauden pertsonak tokian-tokiko Lurralde Ordezkaritzara agertu beharko dute, behar diren gestioak egite aldera.

ERREKURTSOAK

Gorako errekurtoa jarri ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 17a



JON AGIRRE HUERGA
LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA